

## Francoren bala galdua

*Euskaldunon Egunkaria*, 1998-08-04: 3.

Bala galduak ere hiltzen dute. Zumalakarregi, kasu jakina. Baina bada anonimoagorik ere. Bat aipatzekotan gertuen izan dudan nere aita propioa. Honek ordezkaturiko ditu bere kintako euskal abertzale guztiak. Gerra oso bat piztu zuten beretzako eta bere familiaren kontra; errebolber Smith batekin jantzi zuten eta halaxe sentitu zen arerioaren bila ongi ezagutzen zituen mendira igo zenean. Inguraturik geunden! Inguru honen buru gizon bakar bat, Franco, izen berria, eta honek borroka pertsonalean tiro bakar bat bota zion, baina hiru urtez galdu ezina Andoain, Euskadi Asturias arte, itsaso hurbila, Frantzia, Catalunya, itzulian berriz Frantzia eta hemendik itsaso zabalaren beste aldera azkenean Amerikaren, *refugium pekatorum*, aurkitu zuen arte. Heldu zenean zin egin zuen gurutze batekin, lur berriaren gainean belauniko, ez zela herrira itzuliko arerioa hil zela jakin arte. Berrogei urte gero etorri zen, azkenean!, dagoeneko ilezkorra zela etsi genuenean, gizona hil zelako berria, orain Paesa bezala, eta neronek ekarri nuen herrira amarekin batera. Hendaiako zubian guardizibila ikusi genuenean, jantzi eta guzti, beldurtu nintzen, orain armatuko zuela aitak, genio bizikoa baitzen... Inoxente, Martin, beste askotan bezala, zeren eta aita Pellok itzuli zituen begiak instante bat nigana eta esan zidan, uniforme txarolatuari begira-begira berriz, urrungo zerbait gogora ekarri balio bezala:

"Martin, zein da hau?"...

"Porterua", irten zitzaidan, arrunta zen zerbait esateko... Baina abian konturatu nintzen, gogotik joan zitzaiola uste nuen aspaldi bere kontra botatuko bala galdu famatu hura buru-barruan zeramala efikazki lehertua. Bizirik zetorrena hila zegoela, eta familia, geratu garela gomutarekin.

Ezin ahaztua.